

MITOLOGIA SENTITUZ

Egungo ikuspegitik berrinterpretatu dituzte iraganeko euskal mitoak

 **KULTURA /** Idoia Eraso

Zuberoako xoko batetik Euskal Herriko sinesmen zaharren irudikapena berrinterpretatu dute. Herauskorritxe zentroan mitologiaren ikuspegi berria proposatzen dute. Atetik sartzearekin bat mezua argi eta garbi agertzen da, “mitologia” hitzak burura ekartzen dituen irudiekin ez dugula topo egingo azaltzeko: «*Euskal mitologiari bürüzko marrazki ala irüdikape-nak 20. mentean baizik ez dira agertü, ahomihiz helarazirik izan dira betidanik, eta ondorioz gela hontan haien itxüratzeko li-bertate osoa hartü da*».

Askatasun hori oinarri, pertsonaia ezberdinak era ezohiko batean agertzen dira bideoetan, eskultura txikietan, marrazkietan eta soinuaren bitartez. «Sentsazioetan oinarrituta, gure saltsa egin dugu», azaldu du Pette Etxebarria proiektua osatu duen taldeko kideak: «Ez da zentro dibulгатiboa, interpelatu nahi izan dugu, mitoek duten interesa piztu nahi izan dugu».

Zentroari izena ematen dion Herauskorritxe harriaren kopia ere atzematen ahal da bertan. “Atharratzeko harria” bezala ezagutua dena Maidalenako kaperan atzematen ahal da, eta III. mendean egin zuen Caius Valerius Valerianus erromatarrek “Herauscorritse” jainkoaren omenez.

Harria «laidotze edo opa egite aldare bat da», eta horren inguruan jan eta edateko bilkurak izaten ziren, «saihetsetan zizelaturik ageri diren ontziak eta azpil zabalak pentsarazten duten bezala». Euskal jainkoaren sinismena ospatzeko baliatzen ziren ekitaldien zentzua eguneratu eta harria egungo maneretan bizi-aziti dute. «Ikuspegia aldatu dugu sentsazioei lotuta, horretan originaltasuna bada, begiratu eta sentitu», nabarmendu du Etxebarriak.

Egiazko harriaren inguruan bezala mitoak bizitzaren parte bilakatzen dira Atharratzeko zentroan baliabide ezberdinak erabiliz. Baliatutako tresnetako bat marrazkiak dira, gaurkotasunetik egindakoak, baina garai

Atharratzeko turismo bulegoaren gaineko estaian Herauskorritxe mitologia interpretazio zentroa ireki berri dute. Bertan, euskal kondaira eta mitoetara hurbiltzeko aukera ematen zaio bisitariari, jentilak, basajaun, lamiak... bezalako pertsonaia mitologikoak euskarri garaikide eta ikuspegi berriekin deskubritzeko.

batetik ekarritako zentzua berenganatuz: «Marrazki horiek dira segurean ere, sineste zaharrak eta aztikeriak botitzen dituen jakintza batez baratu diren azken herexak. Siniste horiei esker, balinba, oso gogorrek ziren bizimoldeak aisago egariten zizutuzten». Soinuak izan dira mitologiara hurbiltzeko beste era bat, adineko zuberotarrek mitologiari buruz duten jakitatea eta irudipena partekatu dute, eta, hala, zentroan azalpenok entzuteko eserlekuak ezarri dituzte.

Bideoak era badira zentroko protagonista; bost dira orotara, estetika eta luzera ezberdinekoak. Animazioak, oihalen gaineko efektuak, kanpo zen barne eszenifikazioak jasotzen dituzte. Laminak, basajaun edo jentilak ikus daitezke bideoetan: «Abiapuntua ez zen erre-presentatzea

usu ikusten dugunetik, askotan bideo horietan sinpleki erakusten dugu. Esaterako, basajaun egiteko oihanak guri eragiten dizkigun sentsazioetatik abiatu gara». Bideoan hostoz eta larruz jantzitako gizon argal bat ikus dezakegu hostoz egindako zego batekin errekan ura hartzen.

Sortzaileek emandako tresnekin batera, norberak ere inguru-nearekin bat eginik sentsazioei atea irekitzeko bidea eman dute; sei metroko zulo baten gainean sare bat ezarri dute eta bisitariak hortik ibiltzeko aukera badu. «Gainean jartzen ahal zara eta marraztu edota etzan», azaldu du Etxebarriak.

GIZARTEAREKIN BAT EGINEZ

Proiektuaren hastapenetik da bertako partaide Claude Labat historialari eta mitologian adi-





tua, eta Herauskorritxe gauzatu duten gazteak lagundu ditu bidean. Lau zuberotar, osagarriak diren lan eremu ezberdinetatik heldutakoak, izan dira proiektuaren sortzaileak: Joana Etxeberri jostuna, Dido Etxeberri diseinuan aditua eta arte plastikoak lantzen dituzten Maritxu Etxeto eta Pette Etxebarría. Denen artean Kakots elkar-tea sortu dute.

Xiberoa Herri Elkargoak mitologiari buruzko zentro bat egiteko proiektu deialdia egin zuen, eta lau gazteek eskuratu zuten. Berehala erabaki zuten «beste manera batez espresatzeko libertatea» hartuko zutela. Mitologia egungo arranguren erakusle izan behar dela uste du Labatek ere, eta bere irudikapena horren arabera moldatzearen defendatzaile sutsua da. Gazteen ikusmoldea ezagutzean berehala bat egin zuen proiektuarekin: «Hemen ez ditugu imajinak kontsumitzen, baina gure baitan, sakonean, den zerbaiti buruz mintzatzen».

Ikusmolde hori izan da proiektuaren abiapuntua: «Mitoak sortzen du jendartea eta humanitatea kontatzen digu.

Mitologiaren ikusmolde gaurkotu eta pertsonala ematen dute lau gazte zuberotarrek Herauskorritxe zentroan bideoak, marrazkiak, soinuak eta eskulturak baliatuta.
Bob EDMÉ



Mitoa pertzepzio, sentsazio ala emozio batetik agertzen ahal zaigu». Hitzok oinarri hartuta Etxeberriak borobildu du ideia: «Gure xedea mitologia egunero-koan, bizitzan eranstea izan da».

Mitologoak Herauskorritxeko lana «gizartearen zerbitzura» dagoela adierazi du. Zentzu horretan, turistentzat bezala bertako jendearentzat ere zer ikasi ekartzen duela gaineratu du: «Euskal kultura zientifikoki ere aztertzen da, eta hor ikusten da kondairek gizarte zaharren beldurrak erakusten dituztela. Mitoak ulertu eta berrikusteak gaur egungo gizartea laguntzen ahal du».

Labatek lau gazteen eskuetan egitasmoak berehala hartu

duen «ikuspegi artistikoa» nabarmendu du. Zentzu horretan, bisitariak «beren oinarrietan desegonkortu» nahi izan dituztela azpimarratu du: «Horrela jendek mitologia sakonki sentitzen ahal du». Helarazten duen mezuzaz gain baliatutako estetika bera ere aipatu nahi izan du: «Artistikoki gaur egungo ikuspegi oso polita eskaintzen du». Gaia jorrazteko erak harritu du historialaria: «Arras kontent naiz, nik emandako datuekin harago joan dira».

Interpretazioak interpretazio, mitologia zentzu hertsian topatzeko asmoz zentrorra hurbiltzen direnentzat testu argigarri bat ere prestatu dute. Herausko-

rritxeko interpretazio zentroak egindako ekarpenak bestela «ulertezinak» direla sentitzen dutenentzat lagungarri izatea ere badu helburu testuak. Horrenbestez, bisitariak berak izango du bisitari zer zentzu eman erabakitze aukera.

Euskal mitologian aditu ez izanagatik ezagunak zaizkigun hainbat pertsonaiaren gainean ematen den ikuspegiak harritu egingo du bisitaria, egungo gizartearen errealitate eta beharretara ekarritako mezuak ematen baitira zentroan. Esaterako, basajaunaren bitartez bestelako ideiak helarazten dituzte: «'Bassa' izateak ez du erran nahi 'abre' edo 'bahest' izatea». Bide horretatik harago eramaten ahal da gogoeta: «Oihanean edo basoan bizitzen entelegatzen du gizakiak izadiaren parte bat bera dela eta izakiak oro elkarri atxikirik direla. Basajaunak, hots basoetan bizi den pertsonaiak, lotsarazten gaitu, zuhurki bizitzera deitzen gaituelakoz».

Jentilak ere agertzen dira At-harratzeko turismo bulegoko selauruan. Haien irudikatze bideo batean gaztetxo batzuk agertzen dira zuriz jantzita, eta ikasgai bat badute helarazteko: «*Mitologia kontakizunak dio Ûrre Aroala arrajiterik ezin dela agi eta honartü behar dügüla izadiaren legeak gizonen lekeen gainetik direla*».

Laminengana hurbildurik munduko beste mitologiak abiapuntu harturik diren beraiekiko aurreiritziak baztertu nahi izan dituzte: «*Lamiñak ez dira debrütto txostakari elibat, haboroziz-eta jente txarroil eta ergelak, edo beharri xorrotxak dütüen elfe üdüriak..*». Zer ez diren argitu eta zer diren argi azaldu dute: «*Hoinak ahateen gisan, palmatürük dütüen eta ttipixka diren emazte edo gizon elibat*». Ondoren, Herauskorritxe berezi egiten duen mitoen interpretazioari uzten diote bidea: «*Jentetarzün habororen bila dauden gizakien seinale da. Lamiñek badue jente kenteari hanitx erakastekorik*». Azalpen guztiak bideoan ikusten dena ulertu nahi dutenentzat dira, eta bestela sentitu!

«Alegiak dira gure egünoroztako arrenküren salazale» esaldiak laburbiltzen du mitologiara hurbiltzeko zentroaren sortzaileek izan duten era, baita egin dituzten sorkuntzen xedea ere

Mitologiaren gainean interpretazio zentroak emandako ikuspegiak bi iritzi kontrajarri sortu ditu bisitarien artean; anitz maitatu dute batzuek eta ulergaitza egin zaie beste batzuei